



# **INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA:**

**INGURATZAILEAK (PROIEKTUA IDAZTEA EDO  
ERAIKUNTZA/BIRGAITZEA GAUZATZEA)**

Prestatze-data: 2015

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA

Dibulgazio-dokumentu hau helburu berbera duen dokumentu multzo baten baitan sartzen da, hots, **ingurumen-alderdiak** erakunde publiko zein pribatuen **erosketa eta kontratazioetan sartzeak** dituen abantailak erraztu eta dibulгатzea helburutzat duen dokumentu multzo baten baitan.


Dokumentu honek modu garbian azaldu nahi du zein diren kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak, ingurumen aldetik arduratsua den erosketa edo kontratazio bat egiterakoan. Kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak berrikustez gain, gogora ekartzen ditu ingurumena errespetatzen duten produktuak/zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa garrantzitsuenak. Bukatzeko, jarraibideak ezartzen ditu erosketa eta kontratazio prozesuaren une bakoitzerako, prozesua arrakastaz amaitu ahal izateko.

### KONTRATAZIO ETA EROSKETA PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURU PRAKTIKOA

Eusko Jaurlaritzak berak –Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez-prestatutako laguntza-tresna nagusia da.

Eskuliburu honek erosketa eta kontratazio publiko berdea modu integralean gauzatzeko beharrezkoa den informazio guztia biltzen du, administrazio publikoaren tipologia guztiak kontuan hartuta.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean.





### GURE ERABAKIA:

**INGURATZAILEA ERAIKITZEKO/BIRGAITZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO EDO HURA GAUZATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO JASANGARRIA**

Eraikuntza-lanak, hirigintza-lanekin batera, lehentasunezko alorretako batzuk dira erosketa publiko berdeari dagokionez.

Batez ere, bi arrazoirengatik:

- Eraikuntza-lanak eta eraikinen birgaitzeak eta horien ondorengo kudeaketak eta erabilerak administrazio publikoen urteko gastuen zatirik handiena izaten direlako.
- Eraikuntzak inpaktu nabarmenak izaten dituelako ingurumenean.

Kontratazio eta erosketa berdeak eragin positiboa izaten eta ingurumen-inpaktua minimizatzen lagun dezake. Horretarako, ingurumen-irizpideak txertatzen ditu oinarrizko proiektua idazteko edo eraikuntzako edo birgaitzeko proiektua, edota bestelako proiektu bat gauzatzeko zerbitzuaren kontratazioan.



### ZER JAKIN BEHAR DUGU?

Kontratazioan ingurutzaileri buruzko ingurumen-irizpideak txertatzeak honako funtsezko alderdi hauei arreta jartzea eskatzen du:

### Kontzeptu nagusi batzuk

#### Eraikuntzako edo birgaitzeko proiektuen zer alderdi dira, ingurutzaileri dagokienez, ingurumen-inpaktu negatiboak eragiten dituztenak?

- Hondakinak sortzea.
- Materialen kontsumoa haien produkzio- eta fabrikazio-prozesuen arabera.
- Ingurutzailereantzako materialen fabrikazioari lotutako ur- eta energia-kontsumoa.

#### Zer neurri har daitezke inpaktu horiek minimizatzeko?

- Ingurumen-aldagaia hasiera-hasieratik, hau da, oinarrizko proiektua idazten denetik edo hura exekutatzen denetik, alegia eraikuntza edo birgaitzea gauzatzen hasten denetik, txertatzen dela ziurtatzea.
- Ingurumenaren aldetik hobeak diren produktuak eta materialak aukeratzea eta erabiltzea, eta jatorri berriztagarrietakoak, birziklatutakoak, birziklagarriak eta abar hobestea.
- Hondakinen sorrera minimizatzeko neurriak aplikatzea eta sortutakoak behar bezala kudeatzen direla bermatzea.
- Lehengaien kontsumoa arrazionalizatzea.

#### INGURUMEN ZIURTAGIRIAK:

- Ingurutzaileren produkzioari eta instalazioari lotutako ingurumen-kalteak murrizteko modurik errazena ekoetiketak dituzten materialak erostea da. *Ekoetiketa ofizial* nagusiak hauek dira:

Aingeru Urdina		Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa		Beltxarga Zuria	
Natureplus		NF Environment		FSC/PEFC	
Ingurumen-kalitatearen berme-ezaugarria (Katalunia)					



## EROSTEKO ERABAKIA HARTZEN DENETIK HONDAKINAK KUDEATZEN

## DIREN ARTE

Erosle eta kontsumitzaile gisa, zenbait unetan hartzen ditugun erabakiek eragina izan dezakete ingurumenean, gure ingurumen-inpaktua murriztuz. Hauek dira gure buruari egin beharreko galdera batzuk:

### ZEIN DIRA NIRE BENETAKO BEHARRAK?

#### 1. unea. Beharrak

Kontratatu baino lehen, komeni da gure **benetako beharrak** zein diren aztertzea:

- Zenbait adierazle definitu eta kalkulatu behar ditugu, benetako beharrak aurreikusteko eta egokitzeko balioko dutenak.
- Azterketa bat egin behar dugu klimari, jasotako eguzki kantitateari eta haize nagusiei buruz, materialen kontsumoa ahalik eta hobekien doitzeko.

### ZER KONTRATATU BEHAR DA?

#### 2. unea. Kontratazioa

Behin benetako beharrak zehaztuta, oinarriko proiektuaren idazketarako edo eraikuntzaren edo birgaitzearen exekuziorako kontratazio jasagarria egiteari ekingo zaio.

Eskatutako mailaren arabera, zer kontratatu behar dugu?

- **Eskakizun-maila OINARRIZKOA** bada:
  - ⇒ **Esperientzia** egiaztatua ingurumenaren arloko proiektuen idazketan (puntuazioa eraikuntza jasagarriko gidaliburuetan, eraikuntza jasagarriko ziurtagiriak zein ekodiseinukoak UNE-EN ISO 14006 arauaren arabera, eta eskatutakoak baino balore handiagoak ingurutzailaren transmisioari dagokionez).
  - ⇒ **Ingurutzailaren diseinu bioklimatikoa:**
    - Klimaren, jasotako eguzkiaren eta haize nagusien inguruko azterketa.
    - Jarri beharreko beira aukeratzaren eta beroa biltegitatzeko bitarteko gune aktiboak eranstearen inguruko azterketa.
    - Administrazio-erakinetan/etxebizitzetan itzaleztatze-sistema finkoak eranstearen inguruko azterketa.
    - Zubi termikorik eza.
    - Fatxada aireztatu bidezko soluzioak.
  - ⇒ **Ingurutzailaren transmisio-faktoreen hobekuntza:**
    - Obra berrietan: berokuntzaren eskariaren hobekuntza (% 1-10) eta berokuntzaren eta hozkuntzaren baterako eskariaren hobekuntza erreferentziatzko eraikinari dagokionez (% 26-35).

## 2. unea. Kontratazioa

- Birgaikuntzetan: itxituren eta hutsuneen transmisio-faktoreen hobekuntza (% 1-20).
- ⇒ **Hondakinak kudeatzeko azterlana:** % 50eko balorizazioko/prebentzioko helburuekin.
- ⇒ **Materialen hautaketa:**
  - % 50ean industrializatutako eta estandarizatutako elementuak. Birziklatze-jatorriko lehengaiak (% 20 baino gehiago).
  - GWP (berotze globaleko ahalmena) <5 duten isolamenduak. Lotura lehorrez osatutako ingurutzaila (% 10 baino gehiago)
- **Eskakizun-maila AURRERATUA** baldin bada:
  - ⇒ **Oinarrizko mailako eskakizunak betetzeaz gain:**
  - ⇒ **Ingurutzailaren diseinu bioklimatikoa:** Administrazio-eraikinetan itzaleztatze-sistema mugikorrek eranstea.
  - ⇒ **Ingurutzailaren transmisio-faktoreen hobekuntza:**
    - Eskariaren hobekuntza: berokuntzan (% 10-20); baterakoa (% 35-45).
    - Transmisio-faktoreen hobekuntza: itxiturenak (% 20-50); hutsuneenak (% 20-30).
  - ⇒ **Materialen hautaketa:**
    - Industrializatutako eta estandarizatutako elementuak (% 80 baino gehiago).
    - Birziklatze-jatorriko lehengaiak (% 50 baino gehiago).
    - GWP <5 duten isolamenduak eta/edo berehala berritu daitezkeen materialez osatutakoak.
    - Lotura lehorrez osatutako ingurutzaila (% 30 baino gehiago) eta/edo kutsatzaileak arintzeko eta/edo energia sortzeko ezaugarriak dituenak. I. motako edo I. erdimotako ekoetiketa-irizpideak betetzen dituzten materialen %-a.
- **Eskakizun-maila BIKAINA** baldin bada:
  - ⇒ **Maila aurreratuko eskakizunak betetzeaz gain:**
  - ⇒ **Ingurutzailaren diseinu bioklimatikoa:** Fatxada aireztatu bidezko soluzioak eta/edo landare- zein ur-estalkien proposamenak.
  - ⇒ **Ingurutzailaren transmisio-faktoreen hobekuntza:**
    - Eskariaren hobekuntza: berokuntzan (% 20 baino gehiago); baterakoa (% 45 baino gehiago).
    - Transmisio-faktoreen hobekuntza: itxiturenak (% 50 baino gehiago); hutsuneenak (% 30 baino gehiago).
  - ⇒ **Materialen hautaketa:** Lotura lehorrez osatutako ingurutzaila (% 60 baino gehiago) eta/edo kutsatzaileak arintzeko eta/edo energia-sortzeko ezaugarriak dituenak.
  - ⇒ **Hondakinak kudeatzeko azterlana:** % 70 baino gehiagoko

## 2. unea. Kontratazioa

balorizazioko/prebentzioko helburuekin.

## NOLA KUDEATU SORTUTAKO HONDAKINAK?

### 3. unea. Sortutako hondakinen kudeaketa

Minimizazio-neurriak aplikatzen badira ere, obra batean beti sortuko dira hondakinak, bai hiri-hondakinen antzekoak –papera/kartoia, ontziak, eta abar–, bai hondakin geldoak –kutsatutako lurrak eta agregatuak, pintura-geldikinak, disolbatzaileak, eta abar–.

Hondakin horiek mota askotakoak direnez eta arriskugarritasun-maila ezberdina dutenez, obraren ingurumen-kudeaketa planak honako hauek bermatzeko prozedurak, neurriak eta baliabideak aurreikusi beharko ditu:

- Hondakinak gaika biltzea;
- Obran bertan berriro erabiltzea;
- Berriz baliatu ezin daitezkeenean, baimendutako arduradunen bitartez kudeatzea.



## INFORMAZIO GEHIAGO

### Lotura interesgarriak

- [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua (aholkularitza-zerbitzuari buruzkoa da atal berezi bat) eta Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, lhobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.